

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	HARRI NATURALEKO PROIEKTUEN AURREKONTUAK	Iraupena	30
		Baldintzatua	
Kodea	UF0745		
Lanbide-arloa	ERAUZKETA-INDUSTRIAK		
Lanbide-eremua	Harri naturala		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Harri naturaleko proiektuen diseinua eta koordinazioa	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Harri naturaleko proiektuen bideragarritasuna eta aurrekontuak	Iraupena	140
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Harri naturaleko proiektuen interpretazioa (zeharkakoa)	Iraupena	60
	Harri naturaleko proiektuen bideragarritasun teknikoa	Iraupena	50

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0865_3 HARRI HARRI NATURALEKO PROIEKTUEN BIDERAGARRITASUN-AZTERLANA ETA AURREKONTUAK EGITEA gaitasun-ataleko LB3 eta LB4 lanbide-burutzapenekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Aurrekontua egitea eta obra-unitateak identifikatzea, aleko prezioen, prezio partzialen eta guztizko prezioen kalkuluak eta neurketak egitea, prozesu eta material guztiak barnean hartuta.

E11.1 Proiektu batean parte hartzen duten obra-unitateak identifikatzea eta dagozkien kapitulutan sailkatzea eta deskribatzea.

E11.2 Obra-unitate eta eraikuntza-elementu guztiak neurtzeko irizpidea eta/edo prozedurak identifikatzea.

E11.3 Obra-unitate bakoitzaren kantitatea, baita kantitate partzialak eta guztizkoak ere, zehazteko beharrezkoak diren kalkuluak egituratzea.

E11.4 Balioetsi behar diren partidak lantzea, proiektuen ezarritako kapituluaren arabera.

E11.5 Elementu bakoitza fabrikatzeko eta jartzeko lanen aleko kostua zehaztea.

E11.6 Prezio tipoak hautatzea eta aplikatzea; horretarako, materialen eta zerbitzuen prezioak lortzeko katalogoak eta datu-base egokiak kontsultatu behar dira.

E11.7 Behar bezala zehaztutako kasu praktiko batean:

- Jardueren eta materialen zerrendak modu ordenatuan egitea.
- Jarduera bakoitza elementu txikiagotan deskonposatzea, egoera sinpleetara edo aleko balioetara iritsi arte.
- Prozesu errealak aztertzea eta balioestea aurreko puntuan jasotako informazioan oinarrituta.
- Obra-unitate baterako partida bat idaztea, unitatea osatzen duten elementu guztien aleko prezioak eta prezio deskonposatuak aztertuta.
- Azken ziurtapen teorikoa kontuan izanik, obraren egungo egoera kalkulatzeko eta ziurtatuta dagoen alderdia eta ez dagoena bereiztea eta balioestea.

A2: Aurrekontuan sartutako lanak obran kontrastatzeko ezarritako prozedurak aplikatzea eta izan daitezkeen desbideratzeak identifikatzea.

E12.1 Obra-unitate bakoitzerako neurketa-sistema egokiak hautatzea.

E12.2 Magnitudeak dagozkien dimentsioekin lotzea, erabateko definizioa lortu arte.

E12.3 Behar bezala zehaztutako kasu praktiko batean eraikitzen ari den eraikin baten fatxada daukagu:

- Ate eta leihoetako zuloak zuinkatzea.
- Obraren errealitatea aurrekontuarekin alderatzearen ondoriozko aldaketak eta desbideratzeak modu arrazoituan balioestea.
- Fatxada batean dauden errore dimentsionalak modu teorikoan banatzea, betiere ezarritako perdoien barruan egon daitezkeen.

Edukiak:

1. Neurketak harri naturaleko proiektuetarako.

- Neurketa:
 - Neurketa-unitateen motak.
 - Neurketetan erabilitako unitateak.
 - Obra-unitateak.
 - Kapituluaren arabera ordenatzea.
- Obrako neurketak:

- Neurtzeko prozedurak.
- Neurtzeko lanabesak eta ekipamenduak: distantziometroak, laser-marrazleak, estazio totalak. Maneiua.
- Zuinketa:
 - Proiektuaren neurriak eta xehetasunak obrara eramatea. Zuinketa-sistemak.
 - Zuinketa markatzeko metodoak. Lerroak, plomuak eta nibelak.
- Aurrekontuan sartutako lanak eta obraren errealitatea kontrastatzea:
 - Ezarritako perdoiak identifikatzea.
 - Errore dimentsionalak eta desbideratzeak identifikatzea.
 - Errore dimentsionalen banaketa teorikoa.
 - Aldaketen proposamenak eta konponbide alternatiboak.
- Destajuko lanak.
- Azpikontratazioa.
- Obra-ziurtapenak.

2. Harri naturaleko proiektuetarako aurrekontuak.

- Prezioen koadroak: alekoak, deskonposatuak, osagarriak.
- Zuzeneko eta zeharkako eskulana.
- Garraioak.
- Aurrekontua egitea.
- Partiden eta unitateen laburpena.
- Dokumentazioa.
- Aplikazio informatiko espezifikoak.
- Egikaritze materialaren aurrekontua. Kontrataren aurrekontua.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF0744 Harri naturaleko proiektuen bideragarritasun teknikoa.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Harri naturaleko proiektuen diseinua eta koordinazioa.